XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

5418

EBAZPENA 2025eko abenduaren 3koa, Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakariarena, zeinaren bidez onartzen baitira auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko 2026rako tarifak, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalek aurkeztutakoak.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an egindako bileran, erabaki bat hartu du. Hona hemen erabakiaren xedapen-zatia, jende guztiak horren berri izan dezan:

AKORDIOA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan sartu dira auto-taxietako bidaiarien hiri-garraioaren eta Monte Igeldo-ko funikularraren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek 2026. urterako aurkeztu dituzten tarifak berrikusteko eskaerak.

Auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioari dagozkion tarifek prezioak kontrolatzeko araudia bete behar dute, «autonomia-erkidegoaren eremuko prezio baimenduak» modalitatean, Zerga-arloko eta Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Liberalizatzeko Premiazko Neurriei buruzko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 16.4 artikuluaren arabera (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Euskadiko Prezioen Batzordeak eskumen hori erabiltzen du, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuaren arabera (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.) eta baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduaren arabera (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

Aipatutako arau horiek nolabaiteko oreka ekonomikoa lortzera bideratuta daude, eta bizitzaren kostuari dagokionez prezioak eratzeko mekanismoak zaintzeko beharrean ere oinarritzen dira.

2026rako aurkeztutako tarifak berrikusteko espedienteak aztertu ondoren, nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua emateko kostuen egituraren barruko kontzeptuetara egokituta daude.

Horren arabera, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko udalek aurkeztutako auto-taxien hiri-zerbitzuaren 2026rako tarifak baimentzea, balio erantsiaren gaineko zerga barne:

1.– Debagoieneko Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko udalak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua	Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua
4,5479	1,4247	27,2088	4,5479	2,2723	42,7719

(1) Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin, tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da. Bergaran, tarifa hau 06:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin egunero aplikatuko da tarifa hau, 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa aplikatuko da igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.
* Bergaran, tarifa hau 22:00etatik 06:00etara aplikatuko da egunero, baita igandeetan ere.
* Oñatin, tarifa hau 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da.

2.– Debabarreneko Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko Udalak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,4968	1,6269	21,7449	7,0743	1,8005	22,8652

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 2. tarifa 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta igandeetan, jaiegunetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.
* Deban, gainera, 2. tarifa aplikatuko da larunbatetan, igandeetan, jaiegunetan eta abenduaren 24an eta 31n.
* Eibarren, gainera, 2. tarifa aplikatuko da ekainaren 24an (San Juan), irailaren 8an (Arrateko ama) eta azaroaren 30ean (San Andres).
(3) Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen ditu.

3.– Hondarribia eta Irungo udalak, Bidasoa eskualdekoak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,5761	1,3841	26,7094	7,7357	2,1572	41,0894

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.
* Irunen, gainera, 2. tarifa ekainaren 26ko 14:00etatik uztailaren 1eko 22:00etara aplikatuko da.
* Hondarribian, gainera, 2. tarifa aplikatuko da irailaren 7tik irailaren 8ra bitarteko aldirako.
(3) Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen ditu.

4.– Beasain, Lazkao, Zegama, Idiazabal, Ordizia, Legorreta eta Segurako udalak, Goierri eskualdekoak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua	Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua
4,4724	1,4001	26,7429	4,4724	2,2330	42,0310

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

5.– Legazpiko eta Zumarragako Udalak, Urola Garaia eskualdekoak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua	Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua
4.3643	1,3708	26,1857	4,3643	2,1864	41,1621

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

6.– Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalak, Urola Kostako eskualdekoak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,7732	1,4454	27,6041	8,0626	2,3053	45,0582

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.
(3) Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen ditu.

7.– Azkoitia, Azpeitia, Beizama eta Zestoako udalak, Urola Erdiko eskualdekoak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua	Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua
4,4564	1,4062	26,8549	4,4887	2,2428	41,2132

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

8.– Donostialdeko Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)			3. tarifa (3)		
Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (4)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,4142	0,9008	26,1530	7,4315	1,3976	34,8707	7,4471	1,4465	36,0911

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da larunbatetan, igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere. Betiere, 5. tarifa aplikatu behar ez bada.
* Andoainen, 2. tarifari dagokionez, sektorearekin adostutako eta udal bakoitzak gehitutako data batzuetan aplikatuko da, baita lanegunetan ere, 20:00etatik 07:00etara, betiere 5. tarifa aplikatu ezin bada.
* Astigarragan, gainera, 2. tarifa lanegunetan 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara eta uztailaren 24an aplikatuko da.
* Donostian, 2. tarifa lanegunetan 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara eta Donostiako Aste Nagusiko aste barruko egunetan aplikatuko da.
* Errenterian, Hernanin, Urnietan eta Usurbilen, gainera, 2. tarifa sektorearekin adostutako eta udal bakoitzak gehitutako data batzuetan aplikatuko da, baita lanegunetan ere, 22:00etatik 07:00etara, betiere 5. tarifa aplikagarria ez bada.
* Oiartzunen, 2. tarifa sektorearekin adostutako eta udal bakoitzak gehitutako data batzuetan aplikatuko da, baita lanegunetan ere, 22:00etatik 07:00etara, betiere 5. tarifa aplikatu ezin bada. Eta uztailaren 1ean ere aplikatuko da, 24 orduz, abuztuaren 2, 3, 4, 5 eta 6an, 24 orduz, eta larunbat guztietan, igande goizera arte, 00:00etatik 06:00etara.
* Lezon, 2. tarifa egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. Tarifa 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan (irailaren 13, 14, 15 eta 16), bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.
(3) Tarifa hau ostiral, larunbat eta jai-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta jaiegunetako 07:00etara aplikatuko da.
(4) Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen ditu.

9.– Alegia, Villabona, Tolosa eta Zizurkilgo udalak, Tolosaldea eskualdekoak.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua	Bandera jaistea	Egindako km	Itxarote-ordua
5,2032	1,2774	23,1615	5,8722	1,9431	34,1179

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, bai eta larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

10.– Barakaldoko Udala.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,5233	1,2536	24,22	7,2736	1,4402	26,33

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Era berean, larunbatetan, igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian finkatutako jaiegunetan aplikatuko da, bai eta abenduaren 24an eta 31n ere.
(3) Gutxieneko pertzepzioan sartutako ibilbidea 1.500 metrokoa da.

11.– Getxoko Udala.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxarote-ordua
6,84	1,47	20,03	7,46	1,61	28,28

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan aplikatuko da, baita larunbatetan 13:00etatik aurrera eta lanegunetan ere, 22:00etatik 07:00etara.
(3) Gutxieneko pertzepzioan sartutako ibilbidea 1.500 metrokoa da.

12.– Bilboko Udala.

1. tarifa (1)			2. tarifa (2)			3. tarifa (3)		
Gutxieneko pertzepzioa (4)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko saria (4)	Egindako km	Itxarote-ordua	Gutxieneko saria (4)	Egindako km	Itxarote-ordua
5,00	0,95	22,50	5,75	1,15	28,50	6,30	1,18	29,50

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.
(2) Tarifa hau larunbatetan, igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun izendatutako egunetan aplikatuko da. Era berean, lanegunetan 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da, bai eta Aste Nagusiko lanegunetan eta abenduaren 24 eta 31n ere.
(3) Tarifa hau ostiral, larunbat eta jaiegunen eta zaindariaren jaiegunen bezperetan 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da.
* Aste Nagusiko lanegunen bezperetan eta abenduaren 24ko eta 31ko bezperetan ez da 5. tarifa aplikatuko.
(4) Gutxieneko pertzepzioak 1.550 m-ko ibilbidea hartzen du.

13.– Vitoria-Gasteizko Udala.

1. tarifa (1)				2. tarifa (2)			
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Zerbitzuan egondako geldialdi-ordua	Bandera jaistea (4)	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Zerbitzuan egondako geldialdi-ordua	Bandera jaistea (4)
3,448834000	1,261598128	27,72	4,71	3,957483372	1,802579115	31,08	5,76

3. tarifa (3)			
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Geldialdi-ordua	Bandera jaistea (4)
4,373320209	1,802579115	31,08	6,18

(1) Lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.
(2) Igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan aplikatuko da, baita larunbatetan ere, 07:00etatik 22:00etara. Lanegunetan ere 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da. 2024ko uztailaren 17ko ALHAOn (80. zk.) argitaratutako 2025eko jaiegunen egutegian ezarritako igande eta jaiegunez gain, abuztuaren 4an (13:00etatik aurrera) eta 6an, 7an, 8an eta 9an (Andre Maria Zuriaren jaia). Era berean, abenduaren 24an (Gabon-eguna), abenduaren 31n (Urtezahar-eguna) eta Olarizu egunean 13:00etatik aurrera aplikatuko da.
(3) Erkidegoko eta tokiko araudian ezarritako ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetako 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da.
(4) Gutxieneko tarifa eta 1,2 km-ko ibilbidea barne hartzen ditu.

14.– Monte Igeldo funikularra.

2026rako proposatutako tarifa-aldaketa honako hau da:

Tarifa orokorra: 2,00 euro, BEZa barne (% 10).

Joan-etorriko tarifa berezia 3,50 euro, BEZa barne (% 10 murriztua).

Bigarrena.– Akordio honek 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 3a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JAKES AGUIRREZABAL IRIBAR.